



2019ko ABENDUA

188

txi kitto!



**EUSKERAREKIN
GOZATZEN**



Euskara Elkarte

Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maider Aranberri eta
Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Azaleko argazkia

Malen Illarramendi

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96



Jaimitoren aitak
esaten dio:

- Jaimito, irten zaitez kotxetik eta esan ea keinukariek egiten duten.
- Orain bai, orain ez, orain bai, orain ez.



Jaimito eskolatik
itzultzen da eta amak
galdetzen dio:

- Zer moduz eskolan?
- Iparpoloan bezala.
- Nola da hori, Jaimito?
- Dena zero azpitik.



Umeak amari:

- Ama, maite zaitut.
- Eskerrik asko, seme. Orain esaziozu aitari.
- Aita, ama maite dut.



Mutu batek gor
bati esan zion itsu
bat zelatatzen ari
zitzaiola



- Mediku jauna, hankak txingurrituta dauzkat.
- Ba orduan intsektizida bat aginduko dizut.



Gipuzkoako Foru Aldundia



- Zer duzu ba?
Arduratuta zaude...

- Bai neska! Senarra

bidali dut bazkaria egiteko
patatak eroatera, eta bidean
auto batek harrapatu eta hil egin da!

- Ez esan!! Eta zer egin behar duzu orain??

- Ez dakit ba. Makarroiak edo...



Eulia bere
eulikumearekin
burusoil baten buru
gainean zegoela esan zion:
- Nik zure adina nuenean,
hemen ikusten duzuna baso
bat zen.



- Nola
du izena
Txinako

gizonik
altuenak?

- Chin Fin.

- Eta zikinenak?

- Chin Chan Pu.



bitxikiakeriak



BARRASKILO BATI
BEGI BAT MOZTUZ
GERO, BERRI BAT
HAZIKO ZAIO.

ELEFANTEEK EZIN
DUTE SALTO EGIN



HARTZEK 12
KILOMETROKO
DISTANTZIARA
USAIN DEZAKETE.



TRIKUEK DENA HORIZ
IKUSTEN DUTE

ZIZAREEK 5
BIHOTZ DITUZTE




TXAKURREK
EZIN DUTE
TELEBISTA
IKUSI, BAINA
GUSTATZEN
ZAIEN PLANTAK EGITEN DITUZTE
ZURE ONDOAN EGON AHAL IZATEKO.



Denborapasak




7 desbedintasunak




Hizki zopa

K	C	H	Z	O	U	N	I	CLAUDIA
M	X	L	E	U	E	O	Z	SARA
Z	A	S	A	R	A	R	H	MIREN
T	B	R	I	U	I	E	A	ANER
I	A	M	I	X	D	K	I	UXUE
A	T	O	P	U	T	I	M	ALAITZ
L	U	L	M	E	N	S	A	AINAR
A	N	E	R	Z	I	H	R	IKER
								XABAT
								MARI

Claudia Schmidt 5A



7 desbedintasunak



Claudia Schmidt 5. maila

Hizki zopa


L	E	N	A	I	T	Z	U	1-larun
I	A	B	J	L	E	A	R	2-Arrate
S	R	R	O	E	M	R	K	3-Urko
O	R	E	R	P	B	A	I	4-Anboto
B	A	I	A	U	A	L	O	5-Ukiola
A	T	N	U	R	N	A	L	6-Everest
L	E	A	M	O	E	R	A	7-Eraitz
I	R	A	A	U	R	I	I	8-Azikori
N	L	N	I	R	I	E	K	9-Xoxote
E	O	B	A	K	T	V	L	10-Anabar
O	J	O	K	O	O	E	O	11-Kalma
K	U	T	X	L	N	R	B	
A	A	O	T	I	T	E	I	
R	X	R	I	O	A	S	M	
I	O	I	O	U	S	I	S	
A	I	I	K	O	R	U	I	
N	A	T	O	K	I	O	L	

Irene Alonso 5. maila

Jeroglifkoa



Nola egon
Zaha eskolan?



Zeh ghitu la
Bab Esponja ren
etxea?

Xanet Murillo 5. maila

Lehiaketa

7 desberdintasunak



Bidali erantzunak **urtarrilak 10** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



Oier Teruel sariak jasotzen.

Aurreko hileko irabazlea, Oier Teruel

Zorionak Oier! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko kamiseta zuretako! ZORIONAK txapeldun!

Gabonetan aspertzeko astirik ez!

Bete-beteta dator aurten ere gabon-jaietako agenda gure herrian. Hona hemen aukera zabal eta anitza. Ondo pasa!

- **Barrakak (abenduaren 20tik urtarrilaren 6ra):**
Txaltxa Zelain zortzi egongo dira eta anbulatorio parean karrusela. Bonoarekin doan. Txaltxa Zelaikoetan bonoa+0,50€ eta bonorik gabe 1,50€.
- **Astelena frontoiko txiki-parkea:**
Abenduak 22, 26, 27, 28, 30 (11:00-14:00 eta 16:30-20:30) eta 31 (11:00-14:00). Urtarrilak 2, 3 eta 4 (11:00-14:00 eta 16:30-20:30).
- **Urkizuko izotz-pista:**
Bonoak Urkizu eta Errebal inguruko dendetan. Bono gabe 3€.
- **Gabonetako bola erraldoia:**
Barruan sartu eta argazkiak ateratzeko aukera. Untzaga, T.Etxebarria, Ego Gain eta Urkizu inguruan ibiliko da. Abenduak 21, 23 eta 28 eta urtarrilak 4.
- **Zuhaitz berezia liburutegian:**
Gehien gustatu zaizuen liburuko esaldi batekin txartela diseinatu eta arbolan zintzilikatu.
- **Olentzeroren buzoia:**
abenduaren 23ra arte Pegoran eta Portalean.
- **Olentzeroren kalejira (abenduak 24)**
11:30ean Urkizutik hasita Untzagaraino.
12:30etik aurrera: Udaletxean egongo da azken eskutitzak jasotzeko.
- **Erregeen kabalgata (urtarrilak 5)**
17:00etan Dantza Ikuskizuna kiroldegian.
19:00etan kabalgata. Ondoren azkeneko eskutitzak jasoko dituzte udaletxean.



Mari Tere Areta eta Aner De la Vega: “Jendeak Maltzagako zubitik ibaira egiten zuen salto”

Mari Tere Arrate-Balleko Mendigoiti baserrian jaio zen orain dela 86 urte. Aner ilobak 9 urte ditu eta amamari galdera interesgarriak egin dizkio elkarrizketa honetan. Bata zein bestearen haurtzaroak oso ezberdinak izan direla ikusi dute. Zenbat aldatu den gizartea urte hauetan! Eta Eibar? Eibar ere asko aldatu da Mari Tereren ustez. Zeinen memoria ona duen, gainera!



- Eskolan zelan moldatzen zineten ordenagailu eta internet barik?

Sasoi hartan ez genekien ordenagailu bat zer zen, ezta imajinatu ere! Guk buruz ikasten genuen, den-dena buruz egiten genuen. Baina oso irakasle ona izan genuen, asko maite nuen. Egunkarietan bilatzen genuen informazioa, gure etxean amak egunero erosten zuelako. ‘La voz de España’ zen egunkariaren izena.

- Zelan pasatzen zenuten denbora libre?

Niri asko gustatzen zitzaidan eskolara joatea eta edozer gauzogatik eskolara ez joateko esaten zidatenean, negarrez hasi eta joaten uzten zidaten. Bestela, baserrian denbora libre gutxi edukitzen genuen.

- Zertan jolasten zenuten?

Sokasaltoan, ezkutaketetan eta txirikiletan egiten genuen.

- Zer da txirikiletan egitea?

Makilla handi batekin, alde bietan punta zorrotza duen makilatxo bat jo egiten da eta, ondoren, airean bueltaka dagoela, makila horrekin jo eta ahalik eta urrutien jaurti beharra zegoen. Jolas polita zen!

- Oporretan nora joaten zineten?

Ez ginen oporretan joaten, baserrian geratzen ginen. Abereak zaindu behar genituen, itulan egiten genuen (idiak gidatu), garia erosten genuen... Ez genuen oporrik, umeek lan handia egiten zutelako baserrian.

- Autorik bazenuten?

Ez. Lehen autoa 1955ean erosi genuen, 600 bat. Fabrikatu ziren lehen 600 modeloetako batzuk Alfa lantegira ekarri zituzten, langileei saltzeko, eta koinatuek bertan lan egiten zuten, aitari auto bat eskaini zioten, soberan zegoelako. Aitak merke erosi zuen eta lau anai-arrebok erabili genuen.

- Zelan mugitzen zineten kotxe barik?

Oinez! Eguraldi txarra egiten zuenean abarkak janzen genituen baserrietik jaisteko, eta behera heltzen ginenean abarkak gorde eta zapatak janzen genituen.

- Noiz sartu zen telebista zuen etxean?

Gaztea nintzenean irratirik ere ez genuen. Lehenik irratia erosi genuen. Gero, zine-makina bat lortu genuen eta bobina bat sartzen genuen irudiak ikusteko. Soinu gabeko marrazki bizidunak ikusten genituen horrekin.

- Euskera erabiltzen zuen?

Etxean euskeraz egiten genuen, baina eskolan gazteleraz. Eskolara joan aurretik ez nekien gazteleraz egiten. Irakasleak bazekien euskeraz, baina debekatuta zegoen.



“Sokasaltoan,
ezkutaketetan eta
txirikiletan egiten genuen”

- Birziklatzen zenuten?

Jatekoa ortura botatzen genuen, simaur moduan. Bestetik, paperak eta abar erre egiten genituen. Gure sasoiak ez zegoen plastikorik, ezta gaur bezain beste hondakinik ere.

- Asko aldatu da Eibar urte hauetan?

Bai, asko! Guk Gerra Zibila kalean pasatu genuen, baserrietik kanpo. Gerrak herria suntsitu zuen eta hutsetik eraiki behar izan zuten berriz. Lehen merkatu plaza ederra zegoen gaur egun Julian Etxeberria izena duen kalean (lehen Mari Angela zen). Eskailera politak igo behar ziren plazan sartzeko. Gainera, animalientzako tokia zuen behean, sasoi hartan jendea animaliekin joaten zelako merkatu plazara. Bestetik, sasoi hartan erreka bistan zegoen (gaur egun baino gehiago) eta ur-emaria handiagoa zen. Ura garbia zegoen eta jendeak Maltzagan trenan pasatzen den zubitik uretara egiten zuen salto. Gaur ezinezkoa da. Eibartik Debara doan ibaia oso zikina dago gaur egun eta, gure sasoiarekin alderatuta, ia ez du urik eramaten. Lehen, itsasontzi txikiak Altzolaraino heltzen ziren!



ARRATEKO ANDRA MARI

Kaixo lagunok! Hemen gaude Arrateko Andra Mari ikastetxeetako **San Andres** eta **Euskararen Nazioarteko egunak** ospatu berri. Gabonetako oporrak hartu aurretik, LH 1. 3. eta 5. mailako ikasleek **Baikarako tailerrak** izan dituzte abenduaren 9tik 12ra bitarte. Eta lehenengo hiruhilekoari amaiera biribila emateko, abenduaren 20an, auzoan zehar **gabon kantak abestera** aterako gara eta ondoren **Olentzeroren bisita** izango dugu eskolan!!!
Beno lagunok, ongi pasa oporrak!!!!



ITURBURU

Urtero bezela aurten ere **San Andresak** ospatu ditugu Iturburun, dotore-dotore jantzi genuen areto nagusia guztion artean ekarritako gauzeekin: otarrak, antzinako tresna zaharrak, ohialak, sasoiko barazki eta frutak, erroskilak... Goizean-goiz taloaren oreka lozorrotik atarata, erremangatu eta laister hasi ginen taloginan, hango kea eta danbatekoa!
Abenduaren 3a ere ez da oharkabean igaro gurean. **EUSKARAREN EGUNA!** Aretoa kolorez bete genuen, euskararen armarria sarea osatuz, koloretako artilanaz osatutako sarea. Ume bakoitzak euskararekin duen konpromisoa adierazi zuen artilea botaz batera. Azkenik, udazkenean egon arren Iturburun **zuhaitzak hostoz bete** zaizkigu, korridoreak kolorez. Baso bat hazi da gure paretetan. Zuhaitz berezi hauek euskal idazleak dituzte enborretan eta euskararen aldeko leloak hostoetan,



ikasleek beraiek asmatutako leloak eta koloreztatutako hostoak dira. Leire Bilbao, M^a Asun Landa, Bernardo Atxaga, Uxue Alberdi, eta Joseba Sarrionandiaren neurriko idazleetara hurbildu gara, eta euskaraz inprimatu zen lehenengo liburua ere ezagutu dugu.

LA SALLE

Azaroan, Eibar guztian bezala, **Gaztainerre eguna** ospatu genuen La Salle ikastetxean. Patioan gaztainak erre zituen guretzat Jaimek eta gero, amatxo askoren artean kukurutxo gaztainak bete prestatu zituzten guretzat. ... Mmmm... Bai goxoak, bero-beroak!!!
LH1 mailako artearen inguruan lan egin eta gero **Guggenheim museoa bisitatzera** joan ziren. Hauek bai artistak!!!
Eta azaroa bukatzeko, **San Andres eguna** behar bezala ospatu genuen gure ikastetxean: azoka, euskal dantzak eta txorizo pintxoak!!!!



ALDATZE

Euskararen Egunean, abenduaren 3an, Aldatzen gure euskararen maskotaren aurkezpena izan genuen. Orain arte Aingu paperean, pegatinetan, horma-irudietan... ikusita geneukan, baina aurrez aurre ezagutzeko aukera izan genuen. Oso harrera ona eskaini genion denon artean! Bera ere pozik zegoen gu ezagutzeaz eta bere leloa gogorarazi zigun: **Eutsi euskarari!**



URKIZU

Lehen hiruhilekoa amaitzear dagoen honetan martxa betean gabilta Urkizu eskolan, ez daukagu aspertzeko astirik!

Azaroan **Pagoetako parkera** joan ginen 3. eta 4. mailako ikasleak. Iturraran baserrian elikagaien piramidea aztertu eta okin trebeen pare ogia egin genuen. Gainera **Agorregira** joan ginen ibilaldian eta ur-erota baten funtzionamendua nolakoa den ikusi... Egun aparta benetan pasa genuena! Azaroaren azken astea bai izan dela frenetikoa! **Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna** ospatu genuen. Horretarako hilabetez zehar hainbat ekintza burutu ditugu. Horrez gain, **Euskararen Baloia** iritsi zitzaigun eskolara. Iñaki Bea Eibar KE mutilen taldeko bigarren entrenatzailea eta nesken taldeko Irantzu Ibarrola jokalaria etorri ziren eta



aretoan jaialditxo bat egin genuen. Azaroaren 28an, 1. eta 2. mailakoen txanda izan zen eta **Izenaduba Basora** irteera egin genuen. Hango magiarekin txundituta gelditu ginen, pertsonaia mitologikoak ezagutu eta kondaira pila bat entzun genituen.

AMAÑA

Amaña ikastetxean **odol-emaileen proiektua** landu dugu lehenengo hiruhilekoan, eta erronka bati egin diogu aurre: Eibarren eta, bereziki Amaña auzoan, odol-emaileak lortzea. Hori dela-eta, abenduaren 13an, 16:30etik 18:30era, odol-ematea antolatu genuen, Gipuzkoako odol-emaileen Elkartearen laguntzarekin. Ekimen horri bultzada emateko ikasleak buru-belarri dabilta kanpaina egiten.



SAN ANDRES

Azaroaren 27an, San Andres ikastetxeko 3. mailako ikasleak Elgoibarren dagoen **Fosil eta Mineralen museora** joan ziren. Museoa **MUFOMI** deitzen da, eta bertan fosil ikusgarriak eta kolore, mota eta forma askotako mineralak dituzte. Primeran pasa zuten eta gauza asko ikasi zituzten.



Euskeraren eguna (abendua 3)

Euskeraren Eguna jai-giroan ospatu genuen eibartarrok. Goizean goiz ekin genion egunari, ume zein helduek parte hartu zuten dantzaldiari, arratsaldeko lehenengo orduan ere dantzan jardun genuen, eta arratsaldean, kalejira egin ondoren, euskeraren aldeko sareak osatu genituen Untzagan. Eta zuok, ikasleok ere, sare politak osatu zenituzten ikastetxeetan, argazkietan ikus dezakezuen moduan.



Urkizuko eskolako ikasleak emakumeen kontrako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna lantzeko pare bat asteko proiektuan murgildu dira. Maila guztiek hartu dute parte, ekintza ezberdinak egin dituzte, eskolako txikienetatik hasita 6. mailara arte. Gaiak merezi duen interesarekin jardun dute guztiek, langile-langile.



Zein ekintza burutu dituzue gelan eta eskolan gaiaren inguruan?



ITSASO FERREIRA,
10 urte

Eskolako sarreran gaiarekin lotutako liburutegia prestatu dugu: Emakumeen eskubideen alde borrokatu duten pertsonaien biografiak, ipuinak eta tratu txarren inguruko liburuak erakusgai egon dira. Egun batzuk izan ditugu liburuak begiratzeko eta irakurtzeko. Txandak antolatu ditugu, maila guztiak txoko horretatik pasatzeko.



MAIALEN GONZALEZ,
11 urte

Eskolako nagusienok horma-irudi bat prestatu dugu, eskolako sarreran dago. Hainbat teknika landu ditugu: esponjarekin fondoa margotu dugu eta collagea osatu dugu birziklatzeko materialarekin. Gelan egun honen zergatia azaldu dugu, Mirabal ahizpei gertatu zitzaiena azalduz. Horma-irudian euren presentzia isladatu nahi izan dugu 3 tximeleta irudikatuz.



JULEN ESPIGA,
11 urte

Lazo beltzak ere egin ditugu, erahildako emakumeak gogoraraziz. Datuak aztertu eta isladatu ditugu: urtean hildako emakumeak, hildako umeak eta umezurtz geratu ziren ume kopurua. Datorren urtean, txoko berezi bat egingo dugu eskolan, urteko datu beltz hauek jasotzen joateko eta arazoaz jabetzeko.



AMIN EL MOUSSAOUI,
10 urte

4. eta 5. mailako ikasleok emakume aktibisten horma-irudiak egin ditugu. Gure gelan, adibidez, Amika George, Sonita Alizadeh eta Marley Dias ezagutu ditugu. Niri Sonita asko gustatu zait, Afganistango neska bat da, ezkontza derrigortuen aurka borrokatzen du eta rap-ak egiten ditu.



AMETS DE LA VIUDA,
9 urte

Gure gelan "El maltrato sutil" bideoa ikusi dugu eta Malala, Clara Campoamor eta Wangari ezagutu ditugu. Gehien gustatu zaidana Clara izan da. Espainian emakumezkoek botatzeko eskubidea izatea da bere lorpen handiena. Bere leloa da "Defendatu zure eskubideak eta besteenak ere bai".



AROA ALONSO,
8 urte

HH, 1., 2. eta 3. mailetan ipuinak irakurri eta marrazkiak egin ditugu, sarrera girotzeko. Azkenik, beste mailetako ikasleekin batera bideoak grabatu eta proiektuko lan guztiak jaso ditugu bertan. Urkizuko Blogera igo dugu, ikusi nahi badituzue, han daude!



zer irakurri

Juan San Martin Liiburutegia



Goazen perretxikoen bila **6 urtetik aurrera**

Lagundu Mireni eta Xabierri mendian perretxikoak bilatzen. Egun zoragarria pasa haien familiarekin batera. Bildu perretxikorik goxoenak eta, ondoren, lagunartean prestatu eta jan itzazu!



Mortina eta misterio aintzirako oporrak **8 urtetik aurrera**

Iritsi dira oporrak! Bazen garaia! Mendeak igaro dira Mortina eta bere familia azken aldiz oporretan egon zirenetik! Helmuga: Villa Loretsu, izeko Meguera eta lehengusu Dilberten etxea. Baina atsedanak gutxi irauten du. Hala-holako burokrata batek villa jenderik gabe dagoela eta enkantera atera behar duela jakiten du Mortinak. Lortuko ote du berandutu baino lehen hura salbatzeko irtenbideren bat aurkitzea?



Iritsi gara! **10 urtetik aurrera**

Kamioi bat gurutzatu da errepidean eta auto-ilarak sortu ditu. Uste baino gehiago luzatuko da itxaronaldia, eta dozenaka autobus eta kotxek zain egon beharko dute. Autoan doaz Zuri, Eli, Gari eta Julen. Autobusez Danel, Eider, Eneko, Maddi, June eta Igor. Aimar amarekin doa autoz.

Tenghach, Saharako jolasa (Amaña ikastetxea)

Amaña ikastetxean munduko herrialde eta kultura ezberdinetako jolasak ikasten ari dira. Oraingoan Saharako honekin datozkigu:

Jokalariak biribilean jartzen dira eta erdian presoak makurtuta dago eta soldadoa zutik. Presoak biribileko laguntzaile baten izena esango du eta laguntzaileak presoaren burua ikutu beharko du, baina soldadoak ez dio erraz jarriko. Burua ikutuz gero soldadu bihurtuko da, eta ikutzen ez badio, berriz, preso.

jolastokixan jolasian



BIDEOA:

<https://etakitto.eus/txikitto/amana-eskolako-tenghach-jolasa.html>



ipuin

Mundu berri bat

Egun batean aiton-amonen etxera joan nintzen. Baseri batean bizi dira eta zuhaitzez, landarez eta txoriz inguratuta dago dena. Han laga nituen aita-amak, eta aiton-amonak bazkalosteko barriketan eta ni baserriko bueltan jolastera joan nintzen. Han inguruan leku magiko asho topa daitezke bueltatxo bat emanaz gero. Lehenengo hortatik pasatu nintzen Paulina eta Teodoratxo agurtzera. Paulina eta Teodoratxo gure aiton-amonen behiak dira, esne goxo-goxoa ematen diete eta esnegainarekin bizkotxo goxosak egiten ditugu familia edo lagunen urteurrenetan.

Gero atzeko aldeko pikupetik pasatzean pikup pare bat jan eta erreka aldera abiatu nintzen, gehien-gehien hortxe egotea gustatzen zait, errekan hankak sartuta txipli-txapla. Amari ez zais asho gustatzen hankak bustitzea katarroa hartuko dudala esaten dit beti baina... luens nik ezin agramtatu eta beti sartzen ditut.

Egun batean hankak uretan nituela zerbaitek tira egin zidan beherantz... eta beste mundu baten agertu nintzen. Han ez zegoen urik jada, nire baheroak




eta txamarra koloredun zaldia bihurtu ziren eta nik ez nuen batere beldurrik.

Alde batetik bestera hegan ibili nintzen zaldi magikoaren gainean. Hainbeste buelta eta jirarekin nire zaldia egarritu egin zen eta ezutuka hasia zegoen. Ez genuen urik inon topatzen, ezin genuen gehiago, azkenean mapa atzeko bat topatu genuen mundu liluragarri horren paretetan, hantxe aurkitu genuen altxorren bidea. Bidea jarraituz heldu ginen altxorra zegoen tohira, kutxa txiki-txiki bat aurkitu genuen han, kutxa hura zabaltzerakoan elefante bat azaldu zen, elefante txiki bat, baina bat-batean elefantea erraldoi bihurtu zen eta bere tronpa luzetik ur freskoa bota zigun, zaldiaren zorion irrintziak mundu guztian entzun ziren, baita nire amona eta aitonaren baserrian ere.

Goitik behera blai egin nintzen eta begiak zabaldu orduko baserriko errekatxoan nengoen berris, nire abenturak familia eta lagunei kontatzeko irrikitan.

EGILEAK: Irati Anderéz, Eider Moreno, Maren Larrañaga, Zoihartze Elizegi, Jone Arevalo eta Lur Gerenabarrena.



zu margolari